AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

678

87/2014 EBAZPENA, urtarrilaren 30ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Joseba Julen Ballestero Zarraga jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko San Eloy Ospitaleko zuzendari gerente kargutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 29ko 747/2013 Ebazpenaren bitartez (ekainaren 10eko EHAAn argitaratua, 110. zk.), Joseba Julen Ballestero Zarraga jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko San Eloy Ospitaleko zuzendari gerente izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Joseba Julen Ballestero Zarraga jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko San Eloy Ospitaleko zuzendari gerente kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen hau 2014ko urtarrilaren 30etik aurrera jarriko da indarrean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, San Eloy Ospitaleari, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 30a.

Osakidetzako zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.